



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko urriaren 18a

119. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, pertsona helduen euskalduntze eta alfabetatzearen arloko politika orokorrari buruzkoa, Bakar-txo Ruiz Jaso andreak egin (6. or.).
- Jabeldura, Gobernuaren politika orokorrari buruzkoa, tributu-zorrrak kobratzeari dagokionez, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (6. or.).
- Jabeldura, zerga arloko politika orokorrari buruzkoa, bereziki Nafarroarako zerga-erreforma integralari dagokionez, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (7. or.).
- Jabeldura, hezkuntza arloko politika orokorrari buruzkoa, bereziki Madrilgo Diputatuen Kongresuak onetsitako LOMCE hezkuntza-erreformari dagokionez. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Ganasa enpresa publikoko egungo kudeatzailea gaitzesten da eta Nafarroako Gobernua premiatzen da kargutik ken dezan. Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere babesa adieraz diezaion Osasun Ministerioak sustaturiko Genero Indarkeriarik Gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Batasunari. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan liburutegi publiko integral baten zerbitzua ziurtatzeko, bai ikasteko bai kontsultarako, asteko zazpi egunetan. Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da inplantatu aurreko diagnostiko genetikoaren finantza diezaien Lynch sindromea diagnostikatu zaien Nafarroako herritarrei. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berariazko prozedurak ezar ditzan udalek aurre egin ahal izateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako hezkuntza-zerbitzu publikoa mantentzeak sortzen dien defizitari. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraiorako eta egoitzarako laguntzen edo diru-laguntzen lerro bat sor dezan Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko etapetarako, Pirinioetako ikasleentzat. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkeztu dute (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan otsailaren 11ko 12/2009 Foru Agindua, landa eremuetako ikasleek pairatzen duten bazterketa, bizilekuagatikoa, saiheste aldera. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkeztu dute (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak premiatzen du arauak eta legeak alda eta egokitu daitezkeen familia gurasobakarrei dagokienez. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkeztu dute (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes adierazten baitie pentsioen errealizazioaren erreforma bidegabea salatzeko mobilizazioei eta jardueri. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakitekoa zer urrats egin dituen Nafarroako Gobernuak Parlamentuak onetsitako erabaki ba betetze aldera, zeinaren bidez adierazten baitzuen bere babes aktiboa emanen duela Lizarrako hiria “Nafarroako Ondare-hiri” deklaratzeko, Román Felones Morrás jaunak egin (18. or.).
- Galdera, lan batzorde misto bat sortu eta abian jartzeari buruzkoa, Lizarrako eraikin hutsen etorkizuna aztertze aldera, Román Felones Morrás jaunak egin (19. or.).
- Galdera, jakitekoa zer jarrera duen Nafarroako Gobernuak Nafarroarako finantza-entitate publiko bat sortzeko aukerari buruz, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (20. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak jarduketarik aurreikusitako ote duen trafikoari buruzko eskumen osoa berreskuratzeko, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (20. or.).
- Galdera, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegia inauguratzeko eta abian jartzeko aurreikusitako datari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egin (21. or.).
- Galdera, El Vergel, Santo Domingo eta San José zentroetako langile kopurua edota zerbitzua emateko ordutegia murrizteari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egin (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren gastu-konpromiso urte anitzekoei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (22. or.).
- Galdera, Diputatuen Kongresuak onetsitako Agintaritza Fiskalaren Legearen ezarpenak Nafarroaren eskumenetarako izanen litzuzkeen ondorioei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (23. or.).
- Galdera, toki entitateetako euskara zerbitzuetarako laguntzei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin (23. or.).
- Galdera, Nafarroako langabezia-jaitsieraren eta Gizarte Segurantzaren afiliatu diren pertsonen kopuruaren igoeraren arteko aldeari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin (24. or.).
- Galdera, Tuterako San Frantzisko komentu izandakoan kultur etxe bat eraikitzeko Tuterako Udalari emandako maileguari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (25. or.).
- Galdera, Gazteluko plazan aurkitutako aztarna arkeologikoei buruzkoa, Juan Carlos Longás García jaunak egin (26. or.).
- Galdera, iragan urriaren 4ko euriteek eragindako kalteak arintzeko Nafarroako Gobernuak aktibatu zituen baliabideei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (27. or.).
- Galdera, pertsona fisikoen eta sozietateen mugimenduari buruzkoa, beren helbide fiskalari dagokionez, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (27. or.).

- Galdera, jakitekoa zer ekimen jarriko dituen abian Nafarroako Gobernuak ostalaritzari buruzko prestakuntzaren arloko zerbitzuak zabaltze aldera, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (28. or.).
- Galdera, abenduaren 31n ehuneko ehunean beteta egonen ez diren Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko kontusailei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (29. or.).
- Galdera, abenduaren 31n ehuneko ehunean beteta egonen ez diren Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuko kontusailei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (29. or.).
- Galdera, abenduaren 31n ehuneko ehunean beteta egonen ez diren Gizarte Politiketako Departamentuko kontusailei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (30. or.).
- Galdera, abenduaren 31n ehuneko ehunean beteta egonen ez diren Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuko kontusailei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (30. or.).
- Galdera, abenduaren 31n ehuneko ehunean beteta egonen ez diren Sustapen Departamentuko kontusailei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (31. or.).
- Galdera, abenduaren 31n ehuneko ehunean beteta egonen ez diren Osasun Departamentuko kontusailei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (31. or.).
- Galdera, abenduaren 31n ehuneko ehunean beteta egonen ez diren Hezkuntza Departamentuko kontusailei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (32. or.).
- Galdera, abenduaren 31n ehuneko ehunean beteko ez diren Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontusailei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (32. or.).
- Galdera, jakitekoa zer aurreikuspen duen Nafarroako Gobernuak, uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretua onesteak energia fotovoltaiakoaren ekoizpenaren PFEZagatiko diru-bilketan izanen duen eraginari dagokionez, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (33. or.).
- Galdera, jakitekoa zer aurreikuspen duen Nafarroako Gobernuak, uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretua onesteak energia fotovoltaiakoaren ekoizpenaren BEZagatiko diru-bilketan izanen duen eraginari dagokionez, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (33. or.).
- Galdera, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegia ordubetez irekitzeak duen kostu ekonomikoari eta itxita edukitzeak dakarren kostuaren zenbatespenari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (34. or.).
- Galdera, 2011ri dagokion biztanle bakoitzeko zerga-presioaren datuari buruzkoa, 2012ko kontu orokorretan jasotakoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (35. or.).
- Galdera, Reyno Gourmetek 2013ko urtarriletik urrira bitartean gauzatutako ekimenei eta 2013ko urritik abendura bitarterako aurreikusitako jarduera-egutegiari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (36. or.).
- Galdera, Iruñeko ikasleek asteburuetan liburutegi publikoak erabiltzeko dituzten arazoei buruzkoa, Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egina (36. or.).
- Galdera, Nafarroako liburutegi publikoetan azken bost urteotan kontraturiko langileei buruzkoa, Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egina (37. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu eta 2013ko ekainaren 17ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege pro-

posamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2013ko azaroaren 12ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentutaldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2013ko ekainaren 24ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148., 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena prozedura

arruntari jarraikiz izapidetzea, Erregelamenduko 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Foru Araubideko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2013ko azaroaren 12ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2013ko abuztuaren 8ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege pro-

posamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2013ko azaroaren 12ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, pertsona helduen euskalduntze eta alfabetatzearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko jabeldura, pertsona helduen euskalduntze eta alfabetatzearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak Legebiltzarraren araudiari jarraituz, ondoko jabeldura egiten dio Nafarroako Gobernuari Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Parlamentari honek helduen euskalduntze-alfabetatzearen inguruko politika orokorraz interpelatu nahi du gobernu hau.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Jabeldura, Gobernuaren politika orokorrari buruzkoa, tributu-zorrak kobratzeari dagokionez.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko jabeldura, Gobernuaren politika orokorrari buruzkoa, tributu-zorrak kobratzeari dagokionez.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu du.

2012ko abenduaren 31n, aurrekontu izaerako zordunek 750.248.173,11 euro zor zituzten, 2011ko ekitaldiaren itxieran (664.886.368 euro) baino % 12,8 gehiago. 2011ko kopuru hori, berriz, 2010eko ekitaldiaren itxierako saldoa baino % 14,31 handiagoa zen, eta 2010eko kopurua ere 2009ko ekitaldikoa baino % 11,77 handiagoa zen.

Krisi garai hauetan, hain garrantzitsua den igotza hori agerian geratzen da geroratzeak eskatu dituzten zordunen eta premiamenduzko bidean dauden zordunen bilakaeran; izan ere, 2012ko itxieran, zordun horiek 243,6 eta 386,9 milioi euro egiten zuten hurrenez hurren.

Zenbateko horien garrantzia kontuan hartuta, funtsezkoa da jakitea zein politika orokor jarraitu

den azken urte hauetan, zein politika jarraitzen ari den une honetan eta saldo horiek kudeatzeko zein politika jarraitzea planteatu duen Nafarroako Gobernuak.

Iruñean, 2013ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Jabeldura, zerga arloko politika orokorrari buruzkoa, bereziki Nafarroarako zerga-erreforma integralari dagokionez.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko jabeldura, zerga arloko politika orokorrari buruzkoa, bereziki Nafarroarako zerga-erreforma integralari dagokionez.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuak. Kontseilari eta lehendakariorde Lourdes Goicoecheari.

Nafarroako Gobernuak Kontseilari eta lehendakariordeak harritu egin gintuen Parlamentuan 2013ko urriaren 10ean egindako hitzaldian, zeinean adierazi baitzuen UPNk iragarria zuten "zerga-erreforma integralaren proiektua" 2014ko udara arte geroratuko dela.

Horri dagokionez, parlamentari honek jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, zerga arloko politika orokorra dela eta, bereziki Nafarroarako zerga-erreforma integralari dagokionez.

Iruñean, 2013ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Jabeldura, hezkuntza arloko politika orokorrari buruzkoa, bereziki Madrilgo Diputatuen Kongresuak onetsitako LOMCE hezkuntza-erreformari dagokionez.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok aurkezturiko jabeldura, hezkuntza arloko politika orokorrari buruzkoa, bereziki Madrilgo Diputatuen Kongresuak onetsitako LOMCE hezkuntza-erreformari dagokionez.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Araudiari jarraikiz, ondoko jabeldura egiten dio Nafarroako Gobernuari Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin:

Parlamentari hau nafar gobernuari jabeltzen zaio hezkuntza politika orokorrari buruz, Madrilgo Kongresuan hezkuntza erreforma –LOMCE, alegia– onartu ondoren, erreforma horrek Nafarroako hezkuntza eremuan izango duen ondorioez eta nafar gobernuak hartuko duen jarrera eta egingo duen bideari dagokionez.

Iruñean, 2013ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jasok

Mozioa. Horren bidez, Ganasa enpresa publikoko egungo kudeatzailea gaitzesten da eta Nafarroako Gobernua premiatzen da kargutik ken dezan.

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Ganasa enpresa publikoko egungo kudeatzailea gaitzesten baita eta Nafarroako Gobernua premiatzen baita kargutik ken dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Berriki, Nafarroako enpresa publikoen bigarren berregituratze prozesuaren barruan, Nafarroako Gobernuak José Torres jauna izendatu du Gestión Ambiental de Navarra enpresa publiko berriko kudeatzaile gisa. Zuzendaritza horren pean, zenbait erabaki hartu dira enpresa horretan, zeinek beraiekin ekarri baitute enplegu erregulazioko espediente bat aplikatzea eta, haren ondorioz, 65 langile kaleratzea.

José Torres jaunaren izendapenarekin, pertsona horren eta lehendakari Yolanda Barcina beraren arteko zirkulu pertsonala ixten da, zeren eta Torres jaunak Ingurumeneko zuzendari nagu-

sia izan baitzen gaur egungo lehendakaria departamentu horretako kontseilaria zen garaian.

José Torres jauna departamentutik atera zenean, larritasuneko egoera sortu zen departamentuan, zeren eta, ustez, bere karguaz baliatua baitzen basogintzaren sektorean bere enpresa batzuk sortzeko, eta, Administrazioaren barruan zeukan bere eragimenaz aprobetxatuta, lortua baitzuen sektore publikoak enpresa horietan bazkide gisa parte har zezan, enpresa horiek finantza zitzan eta enpresa horiei lan-enkarguak egin ziezazkien.

Erabaki horiek ondorio larriak ekarri zituzten diru publikorako, eta haien eraginez ordainketa handiak egin zitzaizkien José Torresen eta bere bazkidearen enpresei. Egoera horrek berarekin ekarri zuen egindako inbertsio publiko gehienak galtzea. Eta kudeaketa txarra, faktura faltsuak, aktiboen gehiegizko balorazioak eta abarrekoak hainbesteko mailara iritsi ziren non Nafarroako Gobernuak berak bere burua premiatua ikusi zuen epaitegietan salaketa bat aurkeztera Torres jaunak enpresa horietan zeukan bazkidearen aurka, baina ez, ordea, Torres jaunaren aurka, harrigarria bada ere.

Aitzitik, ordezkariak publikoen eta interes pribatuen arteko ate birakariei buruzko salaketa egiantzekoa dela berretsi da, zeren eta Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcinak berriz ere jarri baitu José Torres jauna ardura publiko handiko lanpostu batean, nola baita Ganasa enpresa publikoaren gerentzia.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak errefusatzeko du Ganasa enpresa publikoko egungo kudeatzailea den eta arestian Ingurumeneko zuzendari nagusia izan zen José Torres jauna, zeren eta jotzen baitu bateraezinak direla ardura edo kargu publiko bat zuzen betetzea eta norberaren eginkizunez baliatu ahal izatea onura pribatuak lortzeko, dauzkan erantzukizunekin lortura duten jardura pribatu batzuk sustatzearen bidetik.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzeko du José Torres jauna berehala kargutik ken dezan, Ganasa enpresa publikoko egungo kudeatzaile gisa, zeren eta jotzen baitu izendapen hori eta kargu horretan jardutea bateraezinak direla ardura publikoa duen edozein kargutan aritzeko jarraitu beharreko printzipioekin, eta kaltetzen duela erakundeek gizarteari helarazi behar dioten irudia.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzeko du azter dezan aukerarik badagoen egun jarrita dagoen demanda zabaltzeko, José Torres jauna bera ere har dezan, demanda hori funts publikoen diru-kopuru handien ustezko galararen ardura zuten enpresetan bazkide eta kudeaketa lagun zuenaren aurka aurkeztu baitzen.

Iruñean, 2013ko urriaren 8an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere babes adieraz diezaion Osasun Ministerioak sustaturiko Genero Indarkeriarik Gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Batasunari.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bere babes adieraz diezaion Osasun Ministerioak sustaturiko Genero Indarkeriarik Gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Batasunari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Genero Indarkeriarik Gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Batasunari babesa erakustekoa, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatu eta onets dadin.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak Genero Indarkeriarik Gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Batasuna deitutako ekimena bultzatu du. Programa hori "Hay salida" plataformaren barrenean dago, eta plataforma hori da Espainiako Gobernuak genero indarkeriaren drama sozialari aurre egiteko proposatu dituen baterako jarduketan ardatza.

Berrogeita hamar enpresa baino gehiago atxiki zaizkio kanpainari, bide horretatik gizarte gizonen eta emakumeen berdintasunari buruz sentsibilizatzen laguntzeko, genero indarkeriarik gabeko gizarte baterantz aurrera egiteko eta genero indarkeriaren biktima diren emakumeak gizarteratzen laguntzeko.

2013ko urriaren 9rako, jada 27 emakume erail dituzte Espainian genero indarkeriaren ondorioz.

Gainera hildako lau haur genero indarkeriaren biktimatzat hartu dira haien amen aurkako indarkeriaren ondorioz hil baitira. 2013an eraildako emakume horietatik soilik seik aurkeztua zuten beren erasotzaileen aurkako salaketa.

Genero Indarkeriarik Gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Batasunak, 2012ko uztailean aurkeztu zenak, bere lehenengo urtean lortu du guztira genero indarkeriaren biktima diren 463 emakumek enplegu bat lortzea enpresa sinatzaileen konpromisoaren ondorioz eraturiko laneratze programei esker.

Espainian batasun horri atxiki zaizkion 56 enpresetatik batzuek establezimenduak edo ordezkariak dute Nafarroan, baina bakarra ere ez dago foru erkidegoan egoitza soziala duena.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Bere babesa erakuts diezaion Genero Indarkeriarik Gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Batasunari.

2. Bultza dezan Nafarroako enpresak aliantza horri atxiki dakizkion.

Iruñean, 2013ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan liburutegi publiko integral baten zerbitzua ziurtatzeko, bai ikasteko bai kontsultarako, asteko zazpi egunetan.

MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren neurriak har ditzan liburutegi publiko integral baten zerbitzua ziurtatzeko, bai ikasteko bai kontsultarako, asteko zazpi egunetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari

ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Foru parlamentari Patxi Leuza García eta Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan jasotakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Aurten, honako albistearekin hasi da ikasturtea, prentsaren bidez jakin dugunaren arabera: ez

larunbat arratsaldeetan, ez igandeetan, ezin izanen da ikasi Iruñeko inongo liburutegi publikotan.

Gaur egun, Iruñeko liburutegi publikoen sareak, Urrutiko Unibertsitatearen, NUPen eta Nafarroako Unibertsitatearen campusekin batera, 6.416 irakurle-postu eskaintzen dituzte; haietatik, 3.291 publikoak dira eta 3.125 pribatuak – Nafarroako Unibertsitatearenak, hain zuzen-. Hiru mila postu publiko baino gehiago horietatik bakarrean ere ezin da ikasi ez larunbat arratsaldeetan, ez igandeetan. Eta Liburutegi Nagusiko eta San Frantzisko Plazako liburutegiko aretoak dira larunbat eguerdira arte zabalik dauden bakarrak.

Irailaren 20an, NUPek bere ikasleei jakinarazi zien liburutegiaren ordutegia berrantolatu behar zuela, eta horrek berekin ekarri zuen haren instalazioak asteleheneetik ostiralera irekitzea 8:00etatik 21:30era. Izan ere, zerbitzuaz arduratzen den kanpoko enpresak ezin omen ditu bere gain hartu horrek dakarren kostua, aplikatu zaizkion aurrekontu-murrizketak, % 60 ingurukoak, tarteko. Kontraprestazio gisa, NUPek unibertsitate-erkidegoarentzako mailegu-zerbitzua zabaldu du eta iragarri du liburutegia 9:00etatik 23:00etara irekiko duela azterketak dauden astean eta proben aurretiko bost asteburutan; halaber, Gelategiko hiru ikasgela zabaldu eta prestatuko ditu larunbatetan, 08:00etatik 15:00etara. Neurri hauek ez dute asetzen, halere, campus publikoko ikasleen sektore handi bat. Izan ere, sektore horrek mobilizazio kanpaina bat abiarazi du, sinadurak biltze aldera. Horren bidez, eskatzen dute NUPeko liburutegia berriz ere asteburuetan ireki dadila.

Nafarroako Unibertsitateko areto pribatuak dira ikasleei igandez ikasteko aukera ematen dieten bakarrak.

Egoera hori ez dagokio 20.000 pertsona baino gehiagoko unibertsitate-populazioa duen hiri baten panoramari.

NUPen errealitate berria bat dator, gainera, Iruñeko Udalaren liburutegi publikoen sarearen neguko ordutegiekin; izan ere, beren aretoak arratsaldeaz baizik ez dituzte irekitzen (San Frantzisko Plazako liburutegiaren eta Liburutegi Nagusiaren kasuan izan ezik), Nafarroako Gobernuak aurrera eraman duen murrizketen politikaren ondorioz eta politika horrek sare horretan lan egiten duten langileen kopuruan eragin duen murrizketaren ondorioz.

Abiapuntutzat hartuta hezkuntza dela gizarte baten garapen-mailaren determinatzaile garrantzitsuenetako bat eta Nafarroako goi hezkuntzan aukera-berdintasunaren aldeko apustua egin beharra dagoela, honako erabaki proposamena aurkeztu dugu, eztabaidatu eta bozka dadin:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan asteko zazpi egunetan liburutegi publiko eta integral baten zerbitzua bermatze aldera, bai ikasteko, bai kontsultak egiteko.

Iruñean, 2013ko urriaren 10ean

Foru parlamentariak: Patxi Leuza García eta Manu Ayerdi Olaizola

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da inplantatu aurreko diagnostiko genetikoa finantza diezaien Lynch sindromea diagnostikatu zaien Nafarroako herritarrei.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita inplantatu aurreko diagnostiko genetikoa finantza diezaien Lynch sindromea diagnostikatu zaien Nafarroako herritarrei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen baitu inplantatu aurreko diagnostiko genetikoa finantza diezaien Lynch sindromea diagnostikatu zaien Nafarroako herritarrei, hau da, mutazio genetikoaren ondorioz minbizia izateko aurretiko joera genetikoa duten herritarrei, baldin eta saihestu nahi badute sindrome hori beren seme-alabei transmititzea.

Lynch sindromeak familiarengan eta norbana-koarengan hainbat minbizi pairatzeko aurretiko joera eragiten du, ukitutako kromosomaren arabera (MLH1/MLH2). Genetikoki minbizia garatzeko aukera handiak dituzten pertsonak dira. Aukera horiek, zenbaitetan % 75-85 ingurukoak dira.

Kromosomekin lotutako gaitz bat denez, gaixotasun hori belaunaldiz belaunadi transmititzen da, hereditarioa baita.

Gaur egun, teknika garatu batzuk badaude, sindromea transmiti dadila saihesteko aukera ematen dutenak. Horrenbestez, kontua da lehenengo gaixotasuna diagnostikatzea eta gero, Espainiako zenbait ospitaletan jada ezarrita dauden prozesu batzuen bitartez, saihestea gaixotasuna genetikoki transmiti dadila, enbrioi egokiak edo sindromearen eramaile ez direnak hautatuz.

Ongi dakigu hautespen genetikoak, batzuetan, zalantzak eragiten dituela, izan ditzakeen ondorio bioetikoak direla eta, baina ulertzen dugu, era berean, XXI. mendean bete-betean gaudenean, teknikak osasunaren eta pertsonen eta familien bizi kalitatearen aldean egon behar duela, besteak beste teknikak beharrezkoak ez diren sufrimenduak saihesteko bidea ematen duelako.

Inplikazio bioetiko horietaz gainera, batzuk teknika hauek orokortzearen aurka daude ustez izan ohi dituzten kostu handiengatik; alabaina, kostu horiek beti erlatiboak izanen dira, baldin eta kontuan hartzen badugu foru erkidegoan kasu gutxi daudela. Gainera, argudio horiei aurka egin dakieke adieraziz nolako kostua ekartzen duten urtero

Lynch sindromea pairatzen duten pertsonen osasun publikoak eman beharreko tratamenduak eta egin beharreko kontrolek. Izan ere, epe luzean Administrazioak zuzeneko aurrezkiak lor litzake. Hau da, inplantatu aurreko diagnostiko genetikoaren teknika aplikatuz gero, hasierako kostu bat egonen litzateke, baina, agerikoa denez, gero aurrezki bat etorriko litzateke, gastua bezainbestekoa.

Sindromea pairatzen dutenek, logikoa den bezala, munduko eskubide guztia dute aita-ama biologikoak izan ahal izateko, eta familia horien seme-alabek, halaber, eskubidea dute teknikaren bidez saihestu dakien minbizia bezain larria den gaixotasun bat pairatzeko aukera handiak edukitzea. Hori dela eta, justiziazkoa iruditzen zaigu Osasun Departamentuak, alde batera utzita tratamendu horiek zerbitzu nazionalako oinarriko osasun zerbitzuen zorroan sartzen diren ala ez diren sartzen, edo alde batera utzita tratamendu horiek gaur egun O-NOZen zerbitzu-zorroan jasota dauden ala ez dauden (erabaki proposamenaren bigarren puntuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du tratamendua zorroan sartzeko), aurretik aldeko joera erakutsi dezan tratamendu hauek (inplantatu aurreko diagnostiko genetikoa) emateko, dela baliabide berekiekin, dela beste autonomia erkidego batzuetan ematen diren tratamenduak finantzatuz.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, Osasun Departamentuaren aurrekontuen bitartez, inplantatu aurreko diagnostiko genetikoa finantza diezaien Lynch Sindromea diagnostikatu zaien herritar nafarrei, hau da, minbizia izateko aurretiko joera genetikoa duten herritarrei.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du diagnostiko mota hori Osasun Zerbitzuen Oinarrizko Zorroan sar dezan.

Iruñean, 2013ko urriaren 10ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berariazko prozedurak ezar ditzan udalek aurre egin ahal izateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako hezkuntza-zerbitzu publikoa mantentzeak sortzen dien defizitari.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berariazko prozedurak ezar ditzan udalek aurre egin ahal izateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako hezkuntza-zerbitzu publikoa mantentzeak sortzen dien defizitari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 197. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Gobernuak eskola-kontzentrazioak sortu zituen hezkuntzarako eskubidea baliabideak optimizatzeko berrantolatze aldera. Hala ere, eskola-kontzentrazioaren sorrera horrekin ez zen haien finantziarioaren erregulazioa etorri. Jada 1982an, El País egunkariak kontzentrazio horien egoera ekonomiko kritikoa aipatzen zuen, eta Nafarroako eskola-kontzentrazioetako herriburuek hartutako erabaki bati buruz hitz egiten zuen. Izan ere, erabaki horren arabera, udal horiek kontzentrazioetako gastuak ordaintzeari utziko zioten eta, aldi berean, ekitaldi sinboliko bat egiten zuten, alegia, aipatutako ikastetxeen giltzak Diputazioari ematea, eskolak bere kargu har zitzan.

Egoera horren ondorioz, 1982ko maiatzaren 31n, Nafarroako Parlamentuak Foru Diputazioa premia-tu zuen jardun zezan eskola-kontzentrazioetako buru ziren udalek pairatzen zuten arazo larriari aurre egiteko beharrezko baliabideak izan zituzaten.

Urte asko iragan dira erabaki hori onetsi zene-tik, eta gaurko egoera bestelakoa bada ere, egia da, era berean, ikastetxe horiek egoera jasanezi-na dutela eta egoera hori oraindik ere erregulatu gabe dagoela.

Gai honi dagokionez, Gobernuak Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren hamabosgarren xedapen gehigarria aipatzen du, non esaten baita Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko lehenengo zikloko ikastetxe publikoen kontserbazioa, mantentzea eta zaintza ikastetxeen titularrak diren udalbatzei dagokiela. Ahaztu egiten zaio, ordea, burutza egiten duten udalek ez dutela halako egoerarik aukeratu, eta familiek ere hautatzerik ez dutela, alegia, ez dutela kasuko ikastetxea beraiek hautatzen, Departamentuaren erabakiz joan beharreko ikastetxe publikoa baita. Gaiari buruz eginiko agerraldian, kontseilari Iribas jaunak konpromisoa hartu zuen departamentuak Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen titularrak diren udalbatzei ordaina emate aldera egun dauden kalte-ordainei eusteko, eskola-kontzentrazioetan biltzen diren ikasleek sortutako gastua dela eta. Konpromiso hori hitzekoa izan zen, eta ez zuen aipatu zein proportziotan eta zein irizpiderekin eman behar zitzairen ordaina aipatutako toki entitateei.

Azaldutako guztia eta udalek helarazi dizkiguten zailtasunak kontuan hartuta eta haien eskariei erantzunez, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok honako erabaki proposamena egiten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Berariazko prozedurak ezar ditzan, udalek aurre egin ahal izateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako hezkuntza-zerbitzu publikoa mantentzeak sortzen dien defizitari.

- Hezkuntza Departamentuak konpromisoa har dezan ikastetxearen titularra den udalari sortutako defizitaren % 80 bere gain hartzeko.

Iruñean, 2013ko urriaren 10ean

Foru parlamentariak: Pedro Rascón Macías, Miren Aranoa Astigarraga, Nekane Pérez Irazabal, Marisa de Simón Caballero eta Manu Ayerdi Olai-zola

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraiorako eta egoitzarako laguntzen edo diru-laguntzen lerro bat sor dezan Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko etapetarako, Pirinioetako ikasleentzat.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI, NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita garraiorako eta egoitzarako laguntzen edo diru-laguntzen lerro bat sor dezan Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko etapetarako, Pirinioetako ikasleentzat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 197. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 5.5 artikulua esaten duenez, "hezkuntza sistemak erraztu behar du eta administrazio publikoek sustatu behar dute herritar guztiak derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etaparen mailako prestakuntza eskuratzen irits daitezen". Bestalde, 80. artikulua administrazioei eskatzen die konpentsaziozko ekintzak gara ditzatela egoera ahulean dauden lurralde esparruekin, horretarako behar diren baliabide ekonomikoak eta laguntzak emanaz. Ez dira hor amaitzen Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak egiten dituen aipamenak ikasle guztientzat beharrezkoa eta galdagarria den aukera-berdintasunari buruz. Hala, aipamen guztietan azpimarratzen da baliabideak emateko eta aukera-berdintasuna gauzatzeko beharra, bai eta edozein faktoreren ondorioz, geografikoa barne, sortzen diren desberdintasunak ekiditeko beharra ere.

Nafarroan, bereziki kezkarria da Pirinioetako haranetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondorengo etapetako ikasleen egoera, zeren eta etapa horietako hezkuntza-gastuek nabarmen kaltetzen baitituzte Pirinioetako familien erosteko ahalmena eta ongizatea. Onartzen dugu Hezkuntza Departamentuak ezin duela bere gain hartu zerbitzuen eskaintza egokia egitea, baina bidegabea eta aukera-berdintasunaren printzipioaren guztiz aurkakoa da ikasle horientzat ez egotea inolako laguntza berezirik garraiorako edo egoitzarako, gainerako ikasle guztientzat, oro har, daudenez gainera. Aukera bat baino gehiago dago Pirinioetako larrialdi planean planteatu zen arazo

horri irtenbidea emateko, baina ez zen halakorik jaso eta ez zaio konponbiderik eman.

Arazo honi konponbidea emateak berarekin ekarriko luke biztanleria Pirinioetako haranetan asentatzea, bai eta biztanleak erakartzea ere. Ukaezina da familien bizitokia eta lan egiteko tokia aukeratzeari buruzko erabaki asko seme-alabentzako dauden hezkuntza- eta prestakuntza-aukeren arabera hartzen direla, eta erabaki horiek dakartzaten kostu ekonomikoekin.

Azaldutako guztia eta udalek helarazi dizkiguten zailtasunak kontuan hartuta eta haien eskariei

erantzunez, behean sinatzen dugun parlamentutaldeok honako erabaki proposamena egiten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du garraiorako eta egoitzarako laguntzen lerro bat sor dezan Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko etapetarako, Pirinioetako ikasleentzat.

Iruñean, 2013ko urriaren 10ean

Foru parlamentariak: Pedro Rascón Macías, Miren Aranoa Astigarraga, Nekane Pérez Irazabal, Marisa de Simón Caballero eta Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan otsailaren 11ko 12/2009 Foru Agindua, landa eremuetako ikasleek pairatzen duten bazterketa, bizilekuagatikoa, saiheste aldera.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alda dezan otsailaren 11ko 12/2009 Foru Agindua, landa eremuetako ikasleek pairatzen duten bazterketa, bizilekuagatikoa, saiheste aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 197. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Egungo eskola-mapan, Pirinioetako DBHIak (Garralda, Otsagabia eta Erronkari) Padre Moret BHIari atxikitako ikastetxeak dira A eta G ereduko lerroetarako, eta Eunate BHIari atxikitakoak, berriz, D ereduko lerrorako.

Hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 11ko 12/2009 Foru Agindua ezartzen ditu "ikastetxe publikoen eta pribatu itunduen eragin eremuak, ikasleak onartzeko arauak ematen dituen apirilaren 2ko 31/2007 Foru Dekretuaren 7. artikuluan ezartzen direnak." Izan ere, foru agindu horrek Iruñeko eta Iruñerriko udalerrriak barnean hartzen dituen eremu bakarra ezartzen du. Eremu bakar horretan sartzen dira, besteak beste, arestian aipatutako ikastetxeak.

Eremu bakar horrek ondorioak ditu ikastetxeek ikasleak hartzeko ezartzen duten baremazioan, zeren eta eremu horretan bizi diren ikasleek eremuko edozein ikastetxetarako ahal den puntuazio handienarekin sartzeko aukera duten bitartean, ez zaie gauza bera gertatzen Pirinioetako haranetatik datozen ikasleei, izan ere horiek 0 puntu baitute eremuko edozein institututan sartzeko, salbu eta atxikita dauden institutuan, non ikaspostua bermatuta baitute.

Pirinioetako DBHIetako ikasleek nahitaez atera behar dute beren haranetatik derrigorrezkoen ondorengo ikasketak egiteko, eta gehienek Iruñean bizi behar izaten dute astegunetan, familiak

ostatua aurkitu dien Iruñeko nahiz Iruñerriko edozein auzotan. Hartara, bada, argi eta garbi baldintza okerragoetan daude ikastetxea aukeratzekoan, eremuan bizitokia dutenekin alderatuta.

Azaldutakoaren ondorioz, bizitokia dela-eta landa eremuetako ikasleengan eragina duen bazterketa argia saiheste aldera, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok honako erabaki proposamena egiten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du otsailaren 11ko 12/2009 Foru

Legea alda dezan, eranskinean, Iruñeari eta Iruñerriari buruzko lehenengo idatz-zatiko a) letran sartuz oraindik ere Iruñean eta Iruñerrian familia-bizitokirik izan ez baina derrigorrezkoen ondorengo ikasketak eremu horretako ikastetxeren batean egin behar dituzten ikasleak.

Iruñean, 2013ko urriaren 10ean

Foru parlamentariak: Pedro Rascón Macías, Miren Aranoa Astigarraga, Nekane Pérez Irazabal eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak premiatzen du arauak eta legeak alda eta egokitu daitezten familia gurasobakarrei dagokienez.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak premiatzen baitu arauak eta legeak alda eta egokitu daitezten familia gurasobakarrei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean aztertzeke mozioa.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du egiaztatzen duela familia gurasobakarren gizarte fenomenoaren egon badagoela eta hura errespetatu eta aintzat hartzen duela, Europa osoan eta bereziaz Nafarroan gizartearen eraketa berrirako gizarte fenomeno egiazki iraultzaile bat den aldetik.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du gurasobakartasunaren fenomeno berriaren gizarte dimentsio sakonak garrantzi sozial handia hartu duela. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen du legeak gizarte fenomeno berri horren arabera aldatzea eta hari egokitzea.

3. Familia gurasobakarra legez definitu beharra dago eta halakotzat aintzat hartu beharra dago babes sozial eta administratiboaren eraginetarako, babes horien xedea izan behar baitu. Bigarrenez, familia gurasobakarrei laguntzak eman behar zaizkie familia ugarietako laguntzak ematen zaizkien maila berean, edo alargunei laguntzak ematen zaizkien maila berean; eta, nolana ere, familientzako laguntza-politika guztien xede izan behar dute, dela maila fiskalean, dela maila sozialean, dela familia eta lana bateragarri egiteko mailan, bai eta harreman juridiko zibil eta erregistrokoetan, familia-zuzenbideko harremanetan eta eskualdaketan zein oinordetzen arloan ere.

4. Bidezkoa da adieraztea Nafarroako legediaren multzoa modu koherentean egokitu beharra dagoela familia gurasobakarrei babesa emateko, sortzen eta hazten ari den errealitate sozial berri bat baita.

5. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean lantalde bat sortu beharra dago, gaiak eskatzen duenaren arabera koherentziaz garatutako lege-aldaketei buruzko irizpen bat adosteko aukeraz eztabaidatzeko.

Zioak:

Familia gurasobakarren kopurua portzentualki oso handia da jada, eta jotzen da azken urteetan jaio diren haurren portzentaje handi bat familia gurasobakarretan jaio dela. Muturreko aldaketa sozial hori bigarren iraultza da gizartearen familia-egituran, dibortzioaren ezarpenak bere garaian ekarri zuen iraultzaren ondotik.

Ugari dira gaiari buruzko xedapenak eta, gainera, zail gertatzen da koherentzia lortzea arauak ezartzeko garaian; izan ere, haiek egokitzeari ekin behar zaio, eta horretarako aipatutako lantaldea sortu beharko litzateke, aipatutako lege- eta arau-aldaketak egiteari ekin diezaion.

Iruñean, 2013ko urriaren 10ean

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro, Bakartxo Ruiz Jaso eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitie pentsioen errealizazioaren erreforma bidegabea salatzeko mobilizazioei eta jardueri.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten die erretirodunen sektorearekin lotutako erakunde zibilek beren pentsioen errealizazioaren erreforma bidegabea jendaurrean salatze aldera laster eginen dituzten mobilizazioei eta jardueri.

2.- Ministroen Kontseiluak legearen aurreproiektua onetsi ostean, Nafarroako Parlamentuak adierazten du sakon aztertu nahi dituela gure herritarrentzat bidezko pentsioak bermatzea bideratuko duten beharrezko formulak eta lege-aldaketa nahiz aldaketa juridikoak”

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa zer urrats egin dituen Nafarroako Gobernuak Parlamentuak onetsitako erabaki ba betetze aldera, zeinaren bidez adierazten baitzuen bere babes aktiboa emanen duela Lizarrako hiria “Nafarroako Ondare-hiri” deklaratzeko.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer urrats egin dituen Nafarroako Gobernuak Parlamentuak onetsitako erabaki ba betetze aldera, zeinaren bidez adierazten baitzuen bere babes aktiboa emanen duela Lizarrako hiria “Nafarroako Ondare-hiri” deklaratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

Kulturako, Turismoko eta Erakundeekiko Harremanetarako Batzordeak ondoko erabakia hartu zuen, 2013ko maiatzaren 2an egindako bilkuran (9 boto alde eta 6 abstentzio):

1.- “Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere babes aktiboa emanen duela Lizarrako hiria “Nafarroako Ondare-hiri” deklaratzeko.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Lizarrako hiria “Nafarroako Ondare-hiri” deklaratu dezan, egoki diren bideak erabilita eta egoki den dokumentazioa aldezturik prestatuta.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du behar den babes politiko eta tekniko guztia eman dezan, Lizarrako hiria Gizatediaren Ondare deklaratzeko hautagaitzaren espedientea ahal den osatuena eta operatiboena izan dadin, lortu nahi den helburuari begira”

Mozioa onetsi zenetik zenbait hilabete igarota, ondokoa jakin nahi dut:

• Nafarroako Gobernuak zer urrats egin ditu aipatu mozioa betetzeko?

Iruñean, 2013ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, lan batzorde misto bat sortu eta abian jartzeari buruzkoa, Lizarrako eraikin hutsen etorkizuna aztertze aldera.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, lan batzorde misto bat sortu eta abian jartzeari buruzkoa, Lizarrako eraikin hutsen etorkizuna aztertze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen mozio bat, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen lan batzorde misto bat osa

zean Lizarrako Udalarekin batera, hiri horretako eraikin historiko hutsen etorkizuna aztertze.

Zehazki, ondokoa onetsi zen:

1.- Batzorde misto bat sortzea, hiriko eraikin historiko hutsen etorkizuna aztertze.

2.- Prozedura bat hastea, hiriko kultur nahiz gizarte kolektiboei beren iritzia eskatzeko, gizarte zibilak parte har dezan konponbide asebetegarrien eta sozialki onartuen bilaketan.

3.- Batzorde misto hori urteko hirugarren hiruhilekoan zehar abian jartzea.

Hiruhileko hori igaro da, eta Parlamentuak ez du inolako jakinarazpenik jaso. Hortaz, ondokoa jakin nahi dut:

- Sortu al da batzorde hori? Zein egunetan? Zenbat bilera egin ditu?

- Kolektiboei beren iritzia eskatzeko prozedura abiatu al da? Zer ekintza egin dira?

- Gobernuak ba al du asmorik urtea bukatu aitzin parlamentu-agerraldi batean egindako lanen berri emateko?

Iruñean, 2013ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, jakitekoa zer jarrera duen Nafarroako Gobernuak Nafarroarako finantza-entitate publiko bat sortzeko aukerari buruz.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer jarrera duen Nafarroako Gobernuak Nafarroarako finantza-entitate publiko bat sortzeko aukerari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zer jarrera dauka Nafarroarentzat finantza-erakunde publiko bat sortzeko aukerari dagokionez?

Iruñean, 2013ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak jarduketarik aurreikusi ote duen trafikoari buruzko eskumen osoa berreskuratzeko.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak jarduketarik aurreikusi ote duen trafikoari buruzko eskumen osoa berreskuratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

- Zuk eta zure Gobernuak ezer egiteko asmorik ba al duzue trafiko arloko eskumen osoa Nafarroarentzat berreskuratzeko?

Iruñean, 2013ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegia inauguratzeko eta abian jartzeko aurreikusitako datari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegia inauguratzeko eta abian jartzeko aurreikusitako datari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuako Gizarte Politiketako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Noizko aurreikusi da Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegia inauguratzea eta abian jartzea?

Iruñean, 2013ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, El Vergel, Santo Domingo eta San José zentroetako langile kopurua edota zerbitzua emateko ordutegia murrizteari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, El Vergel, Santo Domingo eta San José zentroetako langile kopurua edota zerbitzua emateko ordutegia murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraizak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

El Vergel, Santo Domingo eta San José zentroetako langileen arloan aldaketak egin izanari buruzko albisteak eta komunikazioak ikusita, ondokoa jakin nahi dut:

- El Vergel, Santo Domingo eta San José zentroetako langile kopurua edota zerbitzua emateko ordutegia murriztu al dira?

Iruñean, 2013ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, Nafarroako Gobernuaren gastu-konpromiso urte anitzekoei buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren gastu-konpromiso urte anitzekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko ahozko galdera egin du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzeko:

Nafarroako Gobernuak, bere jarduketa-esparruan, urte anitzeko gastu-konpromisoak hartzeko ahalmena du. Izan ere, urtero, etorkizuneko ekitaldiarako onartutako konpromisoei buruzko informazioa sartzen da Nafarroaren ekitaldi bakoitzeko kontu orokorren barruan. 2012ko abenduaren 31n 597,5 milioiko konpromisoa zegoen hartuta 2013rako; 503 milioikoa 2014rako; 439 milioikoa 2015erako, eta 1.582 milioikoa 2016rako eta hurrengo urteetarako. Zenbateko horietatik guztietatik, zorra amortizatzeagatiko konpromisoak

–282, 362, 374 eta 1.555 milioi, hurrenez hurren—oso nabariak dira, baina nabariak dira, orobat, beste auzi batzuetako konpromisoak ere.

Gobernuaren zenbait departamentutan protagonismo bereziki handia dute kontusail horiek, hainbeste non ekitaldi bakoitzeko gastu arruntaren zatirik handiena baita aurrekontu-programa jakin batzuetan. Kasu horietan, ez da neurrigabea esatea jarduneko ekitaldiko aurrekontua jada konprometuta dagoela urtarrilaren 1ean berean, eta ez dagoela tarterik ekitaldi horretan konpromiso berriak hartzeko.

Halatan, urte anitzeko konpromisoak tresna oso garrantzitsua dira Gobernuaren kudeaketa-eginkizunerako.

Horrenbestez, bereziki interesgarria da jakitea ea Gobernuak definituta daukan politika bat une honetan urte anitzeko konpromisoei dagokienez, eta, hala baldin bada, politika hori zertan datzan.

Hori dela eta, hona galdera:

1. Nafarroako Gobernuak, egungo testuinguruan, politika orokorren bat al darabil urte anitzeko gastu-konpromisoak hartzeari dagokionez?

2. Politika hori departamentuen arabera edo beste irizpideren baten arabera bereizita al dago?

3. Nafarroako Gobernuak helbururen bat ezarri al du arlo horretan, adibidez urte anitzeko gastu-konpromisoen bolumenari dagokionez, 2013ko ekitaldia ixteko?

Iruñean, 2013ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Diputatuen Kongresuak onetsitako Agintaritza Fiskalaren Legearen ezarpenak Nafarroaren eskumenetarako izanen lituzkeen ondorioei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Diputatuen Kongresuak onetsitako Agintaritza Fiskalaren Legearen ezarpenak Nafarroaren eskumenetarako izanen lituzkeen ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuaren ustez, Diputatuen Kongresuak gaur onetsi duen Agintaritza Fiskalaren Legea ezartzeak zer ondorio izanen lituzke Nafarroaren eskumenei begira?

Iruñean, 2013ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, toki entitateetako euskara zerbitzuetarako laguntzei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, toki entitateetako euskara zerbitzuetarako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduen dioenari jarraikiz, honako galdera helarazten dio Nafarroako Gobernuari, zehazten den Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer asmo dauka Nafarroako Gobernuak toki entitateei euskara zerbitzuen harira esleitu beharreko dirulaguntzei dagokionez?

Zioak: Urriaren egonda, oraindik ere deialdia ez da argitara eman.

Iruñean, 2013ko urriaren 10n

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroako langabezia-jaitsieraren eta Gizarte Segurantzaren afiliatu diren pertsonen kopuruaren igoeraren arteko aldeari buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako langabezia-jaitsieraren eta Gizarte Segurantzaren afiliatu diren pertsonen kopuruaren igoeraren arteko aldeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranez, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuaren organo eskudunak idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Estatistika Institutuaren arabera, langabezia zeuden pertsonen kopurua 55.597koa zen 2013an, foru lurraldean. Institutu horrek berak 2013ko abuztuari dagokionez argitaratutako datuak hartuta ikus daiteke guztira 4.870ekoa izan dela langabetu kopuruaren jaitziera, zenbaki absolututan.

Aipatutako aldi horretan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 2.360 igo zen guztira; aurtengo urtarrilean, araubide orokorrean eta autonomoen araubidean izena emandakoen baturak 245.113 egiten zuen guztira; eta abuztuan, berriz, 247.473 pertsona zeuden izena emanda.

Argi dago nolabaiteko disonantzia dagoela azken 9 hilabeteotako langabetu kopuruaren jaitziera –guztira, 4.870– eta Gizarte Segurantzako afiliatu kopuruaren igoeraren artean –2.360 pertsona–.

Disonantzia hori, oro har, eskatzaileen etsipenari lotzen zaio, hasitako bidearen arrakasta eskasa edo deuseza delako. Kopuruak bat ez etortze hori orobat zor dakieke egungo migrazio-fluxu negatiboari; populazio aktiboaren bilakaerari, behin-behinekotasunarekin lotua; edo, besterik gabe, ohiko estatistika-gorabeherei.

Hori guztia argitzeko xedez aurkeztu ditugu ondoko galderak, Nafarroako Gobernuaren organo eskudunak idatziz erantzun ditzan:

- Nafarroako Gobernuaren ustez, arrazoizko dinamikei zor al zaie Nafarroan azken bederatzi hilabeteotan langabezia jaitzi izanaren eta Gizarte Segurantzara afiliatu diren pertsonen kopuruaren arteko aldea nabarmen gutxiago igo izana?

- Nafarroako Gobernuak zeri egozten dio aipatutako indize horien arteko aldea? Ba al dago modurik faktoreak modu berezitan zenbatesteko?

Iruñean, 2013ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Tuterako San Frantzisko komentu izandakoan kultur etxe bat eraikitzeko Tuterako Udalari emandako maileguari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako San Frantzisko komentu izandakoan kultur etxe bat eraikitzeko Tuterako Udalari emandako maileguari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzuteko:

Nafarroako Gobernuak –zehazki, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak–, abenduaren 29ko 465/2006 Foru Aginduen bidez, 12 milioi euroko mailegua eman zion 2006an Tuterako Udalari.

Foru aginduak ezartzen du mailegua eman zela “Tuteran, San Frantzisko komentu zaharrea, kultur etxe bat eraikitzeko”. Are gehiago, aginduan zehazten denez, “mailegua ematearekin lortu nahi den helburua mantentzeko konpromisoa hartzen du mailegu-hartzaileak: kultur etxe bat eraikitzea eta ondoren kudeatzea, gutxienez ere maileguaren amortizazio epeak dirauen bitartean. Bestela, mailegua alde aurretik kitatzeari ekinen zaio”. Orobat adierazten du “ez dela xedearen ez-betetze gisa hartuko higiezinaren besterentzea edo kargatzea, baldin eta mailegua eman duen departamentuak baimena ematen badu eta mailegu-hartzaileak xedearen betebeharra bere gain hartzen badu gelditzen den aldirako, eta maileguan

emandako zenbatekoa itzultzen bada ez-betetze kasuan”.

Maileguak 20 urteko iraupena izanen zuela ezarri zen, % 0ko interesarekin, 4 urteko gabealdiarekin eta printzipala 750.000 euroko 16 urtesaritan itzulita (azkena, 2026an).

Geroago, urriaren 21eko 41/2011 Foru Aginduen bidez eta Tuterako alkatearen eskaerari erantzunez, maileguaren baldintzak aldatu ziren; halatan, gabealdia 3 urte gehiagorako luzatu zen –7 urte, guztira–, eta hiru urtez luzatu zen orobat mailegua, halako moduan non 750.000 euroko 16 urtesariak 2014tik 2029ra luzatuko baitziren. Maileguaren gainontzeko baldintzak ez ziren aldatu, ez behintzat foru aginduan jasotakoaren arabera.

Gauza jakina da kultur etxea ez dela eraiki. Daukagun informazioaren arabera, proiektua kontratatu, egin eta ordaindu zen –600.000 euro inguru–. Egilea Rafael Moneo arkitekto ospetsua izan zen, baina bertan behera gelditu zen kultur etxearen eraikuntza. Izan ere, 2011ko martxoan, orduko eta oraingo alkate Luis Casado jaunak adierazi zuen obraren hasiera geldiaraztea erabaki zuela, hurrengo hauteskundeetatik atera behar zen udal korporazio berria izan zedin proiektuaren gaineko erabakia hartzen zuena.

Halere, kultur etxea eraiki ez den arren, argi dagoena da Tuterako Udalak mailegua jaso zuela. Nafarroako kontu orokorrak azertu besterik ez dago hori baieztatzeko.

Hona galdera:

1. Ba al dago maileguaren baldintzak aldatzeko inolako akordiorik, zioetan azaldu ez dena, Tuterako Udalari emandako maileguaren xedea aldatzeko?

2. Baiezkoan, zer foru agindutan du oinarri akordioak eta zer akordio lortu dira?

3. Ezezkoan, Nafarroako Gobernuak eskatu al dio Tuterako Udalari mailegua berehala kitatzeko, zioetan azaldutako foru aginduan jasotzen zen bezala?

Iruñean, 2013ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Gazteluko plazan aurkitutako aztarna arkeologikoei buruzkoa.

JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkeztutako galdera, Gazteluko plazan aurkitutako aztarna arkeologikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu-

ko Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuari, idatziz erantzun diezaiola:

Magbara islamikoan egindako 190 lurperatzeez gain, Iruñeko Gazteluko Plazan aurkitutako aztarna arkeologikoetatik heldu direnak, bestelako aztarna arkeologikorik igorri al zen Alacanteko Unibertsitatera?

Ba al dago hitzarmenik, agindurik edo mandaturik, Alacanteko Unibertsitatera igorritako aztarna horien analisiari dagokionez?

Alacanteko Unibertsitateak nahiz beste edozein erakunde publiko edo pribatuk egin al du inolako ikerketarik aztarna horien datazioari edo bestelako edozein alderdiri buruz?

Ba al dago inolako konpromiso ekonomikorik? Baiezkoan, zein da konpromiso hori? Bete da ala ez da bete?

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longás García

Galdera, iragan urriaren 4ko euriteek eragindako kalteak arintzeko Nafarroako Gobernuak aktibatu zituen baliabideei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, iragan urriaren 4ko euriteek eragindako kalteak arintzeko Nafarroako Gobernuak aktibatu zituen baliabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iragan urriaren 4an pairatutako euriteek –bereziki, Tafallan, baina baita erkidegoko beste herri batzuetan ere– kalte handiak eragin zituzten instalazio publiko nahiz pribatuetan.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

- Eurite horien ondorioz izandako kalteak arintze aldera Nafarroako Gobernuak aktibatutako baliabideen xehetasunak –giza baliabideak, teknikoak eta aurrekontukoak–.

Iruñean, 2013ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, pertsona fisikoen eta sozietateen mugimenduei buruzkoa, beren helbide fiskalari dagokionez.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, pertsona fisikoen eta sozietateen mugimenduei buruzkoa, beren helbide fiskalari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

